

LORE BAT LOYARTE JAUNA-RI

Zerbaiten eske daukat biyotza
 ¿zer eman nezayoke, zer?
 aberastasun guchikua naiz
 etzait arki nigan ezer;
 baldin beraren zañak egiten
 badirate geyegiz ler,
 chularmetatik aterako da
 ainbesteche odol eder,
 nonta etzaidan izozten oso
 lendik zebillena zuzper.

Dierburutik goramen onak
 zaizkigu orain berriztu,
 ainbesteraño goitu generala
 ez det errezki chiništu;
 ¿nola šošuak udaberrian
 goiki egin oi du chištu,
 eguzkiyaren indar geitzeak
 poza diyolako pištu?
 ala biyotza mingain antzera
 dit uste gabean iztu.

Lore šorta bat daukat eskuan,
 biyotzak emanak bera,
 zuretzako da noski, Loyarte,
 atoz nigandik artzera;
 Donostiyaren omen zaleetan
 geyenekuena zu zera,
 gai ugariyak dauzkatzu, eta
 noiz nai daukazu aukera,
 barren barrendik eskatzen dizut
 apain zaiguzu Euskera.

JUAN IGNACIO URANGA